

Bilbao Orkestra Sinfonikoaren denboraldi berria

EUSKAL HERRIKO kultura musikala begi bistan dago, beste gauza askoren artean, kontuan hartzen badugu historia luzeko orkestra bat dugula, Bilbao Orkestra Sinfonikoa hain zuzen ere. 1922an eman zuen bere lehen kontzertua, Arriaga Antzokian, eta ordutik gaur arte munduan barrena aritu da, zuzendari ospetsuen batutapean eta punta-puntako bakarlariekin: Arthur Rubinstein piano jotzaile legendazkotik hasita, Mstislav Rostropovitz, Ivo Pogorelitx, Alfredo Kraus, Luciano Pavarotti... izar guztiak pasa dira BOSen iragazkitik. Urtez urte egitarau interesgarri eta ongi pentsatuak eskaintzen dizkigu, eta aurtengo ez da salbuespena izango: 17 proposamen aurkituko ditugu, batzuk estandarrek, beste batzuk ausartagoak, bai eskaintzen den programarengatik, bai aukeratutako bakarlariengatik ere.

Errepaso txiki bat emanez, pianozaleok gozatu egingo dugu piano eta orkestrarako hainbat obrarekin: Rachmaninov-en *Paganiniren gai baten gaineko Rapsodia*, hain erromantiko eta zinematografikoa; Ravelen *Sol maiorreko piano eta orkestrarako kontzertua*, elektrizatzailea; Beethovenen *3. Kontzertua*, Mozart ukitua duena, edo Liszten *1. Kontzertua*, sutua; denak ere, behin eta berriro entzuten diren obra horietakoak. Lan sinfoniko garrantzitsuak ere entzun ahal izango ditugu: lehenengo saioan Mahlerren *Titan* izeneko *1. Sinfonia* handia baldin badugu, hurrengo kontzertuetan, besteak beste, honakoak entzuteko aukera izango dugu: Brahmsen *1. Sinfonia*, do minorrekoa, op. 68, Txaikovskiren *Biolin eta orkestrarako kontzertua*, liluragarria, edo Schumannen *2. Sinfonia*, do maiorrekoa.



Baina BOSeK ahalegina egiten du hain “errazak” ez diren lanak eskaintzeko ere. Estreinaldiak izango ditugu, hala nola M.E. Luc-en *Hu*; baita azken belaunaldiko konpositoreen lanak ere; honen adibidea da Huang Ruo gazte txinatarraren *Announcement*; mundu klasikotik aterako gara jazz giroetan sartzeko *Jazz gana* izeneko saioan, Kurt Elling abeslariarekin, eta miniziklo tematiko batek, *Enigmak eta legendak* izenekoak, fantasiatzko mundura eramango gaitu, Guridi, Elgar, Grieg edo Richard Strauss-en partiturekin. Beraz, kalitatea eta imajinazioa publikoa erakartzeko. Ez dugu galduko. ■

Montserrat Auzmendi



www.bertsozale.eus/xilaba



Aiherra

Denen Etxea gelan
Urriaren 18an, 17:00etan





Eneritz
Zabaleta

Odei
Barroso

Ortzi
Idoate





Ortzi
Murua

Patxi
Iriart

Ramuntxo
Christy


